

IZOTZAREN OTZA

Lengo egun batean	Andik lau bat ordura
goizeko izotzak	eguzkian brintzak
dantzan jarri eustazan	uxatzen asi zitun
ezpan eta ortzak,	gauaren izotzak,
konpasa croaten	eguzki epeletan
eutsela okotzak	txorien abotsak.
ikustekuak ziran	Onek kendu eustazan
nere agin otsak.	izotzaren otzak.

«Euskubide bardiña
daukagu bakoitzak»,
sarri entzunak dira
onelango itzak;
baina ez erakutsi
Goikuari ortzak;
laster ixiltzen dabez
bekoen arrantzak.

B. Enbeita

UDABARRIZ

Udabarriz iskanbil inguruak zoro,
goiz-kantari daukazuz sorkariak oro.
Lur-amari dario erne-miña bero,
leiope txoriak nik abeska goizero.
Adar-gaiñak orlegi,
goiz-loraz jantzirik;
eder baita bizia,
aŕtor eizu amesik.
Eta goibel zu, gazte? Zer dozu barnean?
Zek sartu dautzu, ene!, gatxa biotzean?
Alai dozu bizia, egiz, uda astean..
Poz adi, gazte, poztu, izadi lañean.
Intziriz doa ibaia
poza iragardean;
aizeak dardar ezti
nire leiopean

IGOTZ